KALEKO ARTEEN ZIRKUITUA BILBOKO AUZOETAN

CIRCUITO DE ARTES DE CALLE EN BARRIOS DE BILBAO

# eszena kalera



iraila
septiembre
2025

**BABESLEA** / PATROCINA

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA POLITIKA SAILA

DEPARTAMENTO DE CULTURA Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA

**kulturabarrutik.eus**

**KULTURA JASANGARRIA**
CULTURA SOSTENIBLE

KULTURA BARRUTIK

Bilbao

# eszena kalera

## IKUSKIZUN MOTEI BURUZKO PIKTOGRAMAK
PICTOGRAMAS SOBRE LOS TIPOS DE ESPECTÁCULO

**ANTZERKIA**
TEATRO

**DANTZA**
DANZA

**DANTZA BERTIKALA**
DANZA VERTICAL

**KLOWNA**
CLOWN

**ZIRKUA**
CIRCO

**MUSIKA**
MÚSICA

**TXOTXONGILOAK**
TÍTERES

**MAGIA**
MAGIA

**ANIMAZIOA**
ANIMACIÓN

## PUBLIKO MOTARI BURUZKO PIKTOGRAMAK
PICTOGRAMAS SOBRE TIPO DE PÚBLICO

D/TP
**DENONTZAT**
TODOS LOS PÚBLICOS

+7
**GOMENDATUTAKO ADINA**
EDAD RECOMENDADA

## IKUSKIZUNEN IRISGARRITASUNAREN INGURUKO PIKTOGRAMAK
PICTOGRAMAS SOBRE LA ACCESIBILIDAD DE LOS ESPECTÁCULOS

**Pertsona gorrak edo entzumen-arazoak dituztenentzako ikuskizun egokiak**
Espectáculos aptos para personas sordas o con problemas auditivos

**Mugikortasun urriko pertsonentzako leku-erreserbak izango dituzten ikuskizunak**
Espectáculos con reserva de espacios para personas con movilidad reducida

**Beharrizan bereziak dituzten pertsonentzat gordetako eserleku eta espazioak**
Reserva de asientos y espacios para personas con necesidades especiales

# EGUTEGI OROKORRA / CALENDARIO GENERAL

| IRAILA<br>SEPTIEMBRE | ORDUA<br>HORA | LEKUA<br>LUGAR | KONPAINIA<br>COMPAÑÍA | LANA<br>OBRA | HIZKUNTZA<br>IDIOMA | + INFO |
|---|---|---|---|---|---|---|
| 1 | 19:00 | Indautxu plaza<br>INDAUTXU | **ZIRIKA ZIRKUS** | *Marietak zirkus* | Euskara | |
| 4 | 19:00 | Panera plaza<br>ZURBARAN | **GANSO & CÍA.** | *Welcome & Sorry* | Testurik ez<br>Sin texto | |
| 5 | 19:00 | Enkarnazio plaza<br>ATXURI | **EVA GUERRERO + PROYECTO LARRUA** | *Entre cuerpos + Sangre y clorofila* | Testurik ez<br>Sin texto | |
| 6 | 19:00 | Funicular plaza<br>CASTAÑOS | **ROJO TELÓN** | *Rojo Telón Gala* | Testurik ez<br>Sin texto | |
| 7 | 13:00 | Betolaza parkea<br>BETOLAZA | **PICUENTOS** | *Hariak Zirkus* | Testurik ez<br>Sin texto | |
| | 19:00 | Eliza ondoko plaza<br>OLABEAGA | **GOITIBERA** | *Eraitsi SL* | Euskara | |
| 8 | 19:00 | Indautxu plaza<br>INDAUTXU | **ORAIN-BI** | *Mute* | Testurik ez<br>Sin texto | |
| 9 | 18:00 | Levante plaza<br>SAN INAZIO | **ROJO TELÓN** | *Rojo Telón Gala* | Testurik ez<br>Sin texto | |

| IRAILA<br>SEPTIEMBRE | ORDUA<br>HORA | LEKUA<br>LUGAR | KONPAINIA<br>COMPAÑÍA | LANA<br>OBRA | HIZKUNTZA<br>IDIOMA | + INFO |
|---|---|---|---|---|---|---|
| 10 | 18:00 | Ibarrekolanda plaza<br>IBARREKOLANDA | **GOITIBERA** | *Eraitsi SL* | Euskara | D/TP |
| 11 | 19:00 | Zumarraga plaza<br>SOLOKOETXE | **LA GLO ZIRKO DANTZA** | *Pyrenne* | Testurik ez<br>Sin texto | D/TP |
| | | Ametzola parkea<br>AMETZOLA | **DAB DANTZA KONPAINIA** | *NOEUD* | Testurik ez<br>Sin texto | D/TP |
| 12 | 18:00 | Araneko plaza<br>ARANGOITI | **EIDABE** | *Gora bihotzak. Azken taupadak* | Euskara | D/TP |
| | 18:00 | Arabella plaza<br>ARABELLA | **HODEI MAGOA** | *Harritzearen abilezia* | Euskara | +5 |
| | 19:00 | Media Luna plaza<br>TXURDINAGA | **TEATRO FIRULETE** | *Ovidio bidaiaria* | Euskara | +3 |
| 13 | 13:00 | Media Luna plaza<br>TXURDINAGA | **ZIRIKA ZIRKUS** | *Marietak zirkus* | Euskara | +3 |
| 15 | 17:30-<br>19:30 | Indautxu plaza<br>INDAUTXU | **ZIRKOZAURRE** | *Zirkoteka (umeentzatzako zirku tailerrak)* | Euskara | +4 |
| | 18:00 | San Pedro plaza<br>DEUSTU | **HORTZMUGA TEATROA** | *Agurea, urpekaria eta itsasoa* | Euskara | +6 |

| IRAILA<br>SEPTIEMBRE | ORDUA<br>HORA | LEKUA<br>LUGAR | KONPAINIA<br>COMPAÑÍA | LANA<br>OBRA | HIZKUNTZA<br>IDIOMA | + INFO |
|---|---|---|---|---|---|---|
| 16 | 18:00 | Agirre Lehendakaria 184 (LH/FP aurrean)<br>ELORRIETA | **HODEI MAGOA** | *Harritzearen abilezia* | Euskara | +5 |
| 17 | 19:00 | Iturriondo plaza<br>ZURBARANBARRI | **HORTZMUGA TEATROA** | *El viejo, el buzo y la mar* | Castellano | +6 |
| 18 | 19:00 | Campa Ibaizabal plaza<br>ABUSU | **KOILARA TEATRO** | *La llegada* | Castellano | D/TP |
| 19 | 18:00 | Frontoia<br>ALTAMIRA | **EIDABE** | *Gora bihotzak. Azken taupadak* | Euskara | D/TP |
| 21 | 13:00 | La Floresta parkea<br>SAN ADRIAN | **TEATRO FIRULETE** | *Ovidio bidaiaria* | Euskara | +3 |
| 23 | 19:00 | Sabino Arana 50<br>BASURTU | **GANSO & CÍA.** | *Welcome & Sorry* | Testurik ez<br>Sin texto | D/TP |
|  | 19:00 | Karmelo plaza<br>SANTUTXU | **HALAKO EZPALA** | *Motxila* | Testurik ez<br>Sin texto | D/TP |
| 24 | 19:00 | Gernikako lorategia etorbidea<br>MIRIBILLA | **ORAIN-BI** | *Mute* | Testurik ez<br>Sin texto | D/TP |

| IRAILA<br>SEPTIEMBRE | ORDUA<br>HORA | LEKUA<br>LUGAR | KONPAINIA<br>COMPAÑÍA | LANA<br>OBRA | HIZKUNTZA<br>IDIOMA | + INFO |
|---|---|---|---|---|---|---|
| 27 | 19:00 | Eliza ondoko plaza<br>MASUSTEGI | **TEATRO FIRULETE** | *El viajero y el guardavía* | Castellano | +3 |
| | 19:00 | Mena kalea<br>(Conde Aresti egoitzaren atzean / detrás residencia Conde Aresti)<br>ZABALA | **HALAKO EZPALA** | *Motxila* | Testurik ez<br>Sin texto | D/TP |
| 29 | 18:00 | Eskolako landa<br>URIBARRI | **GOITIBERA** | *Eraitsi SL* | Euskara | D/TP |
| 30 | 11:00 | Azoka parkea<br>ZORROTZA | **HORTZMUGA TEATROA** | *Agurea, urpekaria eta itsasoa* | Euskara | +6 |
| | 13:00 | Uzturre plaza<br>MATIKO | **ORAIN-BI** | *Mute* | Testurik ez<br>Sin texto | D/TP |
| | 19:00 | Karmelo plaza<br>SANTUTXU | **LA GLO ZIRKO DANTZA** | *Pyrenne* | Testurik ez<br>Sin texto | D/TP |

# programazioa
# programación



(40 min)

# dab dantza konpainia

## NŒUD



*NŒUD*, frantsesez korapilatua, "DAB dantza konpainia"-ren sorkuntza berria da, non Eduardo Chillidak eta Cristóbal Balenciagak amankomunean zituzten lan metodologietan sakondu duten, mugimenduaren bidez. Obraren inspirazio sozialari dagokionez, bi artista ospetsu hauek bizi izan zuten egoera politiko, sozial eta kulturalari erreparatuz, hiru dantzari jarri dituzte eszenatokian zurrunkeriatik askatasunerantz bidea aurkitu dezaten. Behaketa hauek dantzara ekarriz, iraganera begiratu dute garaikidetasuna eraikitzeko, erroetatik eta herriarentzat.

*NŒUD*, anudado en francés, es la nueva propuesta artística de "DAB Dantza Konpainia", en la que profundizan sobre las metodologías de trabajo que tenían en común Eduardo Chillida y Cristóbal Balenciaga mediante el movimiento. En cuanto a la inspiración social, han observado la situación política, social y cultural que vivieron estos dos reconocidos artistas y han puesto a tres bailarinas y bailarines en escena con la intención de que encuentren el camino desde el encorsetamiento hacia la libertad. Mediante estas dos observaciones, han mirado al pasado para construir la contemporaneidad, desde la raíz y para el pueblo.

| DATA / FECHA | ORDUA / HORA | LEKUA / LUGAR | AUZOA / BARRIO | HIZKUNTZA / IDIOMA | + INFO |
|---|---|---|---|---|---|
| **Irailak 11 Septiembre** | 19:00 | Ametzola parkea | AMETZOLA | Testurik ez / Sin texto | |

(75 min)

eidabe

# GORA BIHOTZAK. AZKEN TAUPADAK



Dantzek, besarkadek eta kantuek Euskal Herriko plazak bete dituzte. Txoko bakoitzean gure bihotzaren zati bat uzten dugu, eta zuen taupadak sentitzen ditugu. Eta, bihotza beteta, agur-festa honetara gonbidatzen zaituztegu.
Dantzatzea, besarkatzea eta abestea da mundua iraultzeko gure aukera.
Etorri gurekin! Hauxe da despedida!
Gora bihotzak!

Bailes, abrazos y cantos han llenado las plazas de Euskal Herria. En cada rincón dejamos un trozo de nuestro corazón y sentimos vuestros latidos; y con el corazón lleno os invitamos a esta fiesta de despedida.
Bailar, abrazar y cantar es nuestra oportunidad para revolucionar el mundo.
¡Ven con nosotros/as! ¡Esto es despedidie!
Gora bihotzak!

| DATA / FECHA | ORDUA / HORA | LEKUA / LUGAR | AUZOA / BARRIO | HIZKUNTA / IDIOMA | + INFO |
|---|---|---|---|---|---|
| Irailak 12 Septiembre | 18:00 | Araneko plaza | ARANGOITI | Euskara | |
| Irailak 19 Septiembre | 18:00 | Frontoia | ALTAMIRA | Euskara | |

(16 + 15 min)

# eva guerrero + proyecto larrua

# ENTRE CUERPOS + SANGRE Y CLOROFILA



*Entre cuerpos* dantza garaikideko pieza da. Bidaia honetan distantziak eta irudiak aipatzen dira, eginahalak egitea, ozeanoa, apneak eta korronteak aipatzen dira; mugak eta euspenak aipatzen dira. Entre cuerpos lana ideia honetatik abiatzen da: inoren lurra ez da ezein herrialde edo pertsonarena, zeren eta norena da gorputza?
Sangre y clorofila: dantza garaikideko pieza da eta Vicente Ameztoy margolariaren obran inspiratuta dago. Paisaiaren, lurraren eta gure nortasunaren artean dagoen harremanari buruz egiten du gogoeta. Bizi dituen espazioak eraldatzen dituen pieza, kolorez, ehunduraz eta poesiaz betetzen dituelarik. Lan koreografiko hau delikatua da ñabarduretan eta zorrotza bere fisikotasunean, eta paisaia amaitzen den eta gure ideiak hasten diren mugatik dabil.

*Entre cuerpos* pieza de danza contemporánea. Es un viaje que habla de distancias, de imágenes; habla de dejarse la piel, del océano, apneas y corrientes; límites y contenciones. Entre cuerpos parte de la idea de que una tierra de nadie es un territorio que no pertenece a ningún país o persona, porque ¿a quién le pertenece el cuerpo?
Sangre y clorofila: pieza de danza contemporánea que se inspira en la obra del pintor Vicente Ameztoy. Reflexiona sobre la relación que existe entre el paisaje, la tierra y nuestra identidad. Una pieza que transforma los espacios que habita, llenándolos de color, texturas y poesía. Un trabajo coreográfico delicado en los matices y exigente en su fisicalidad que camina por la frontera donde termina el paisaje y comienzan nuestras ideas.

| **DATA** / FECHA | **ORDUA** / HORA | **LEKUA** / LUGAR | **AUZOA** / BARRIO | **HIZKUNTA** / IDIOMA | + INFO |
|---|---|---|---|---|---|
| **Irailak 5 Septiembre** | 19:00 | Enkarnazio plaza | ATXURI | Testurik ez / Sin texto | |

(50 min)

# ganso & cia.

# WELLCOME & SORRY




Oihala ireki da: "TO BE OR NOT TO BE!". Horraino, dena ondo.
Antzerkia maite duten bi lagunek "Hamlet" antzeztuko dute, jatorrizkoarekiko leialtasun osoz. Dozena bat artista eta teknikariren lana egin behar izatea, Shakespeareren hizkuntzan antzeztea, talenturik eta trebetasunik ez izatea... ez dira eragozpen izango. Edo bai? Williamek burua altxatuko balu... Agian, ez litzateke harro egongo, baina barre egingo luke.
*Welcome & Sorry* kaleko antzerki-ikuskizuna da, antzerki-lanbidea erakusten duena klasiko handien parodiatik eta haien
inguruko estereotipoetatik abiatuta. Keinu-komedia da, clown-ildoan.

Se abre el telón: "TO BE OR NOT TO BE!". Hasta ahí todo bien.
Dos amantes del teatro representarán "Hamlet" con total fidelidad al original.
El tener que hacer el trabajo de una docena de artistas y personal técnico, el representarlo en la lengua de Shakespeare, el no tener talento ni habilidades no serán impedimento. ¿O sí? Si William levantara la cabeza.... quizás no estaría orgulloso, pero al menos se echaría unas risas.
*Welcome & sorry* es un espectáculo de teatro de calle que visibiliza el oficio teatral desde la parodia de los grandes clásicos y los estereotipos que les rodean. Una comedia gestual en clave de clown.

| DATA / FECHA | ORDUA / HORA | LEKUA / LUGAR | AUZOA / BARRIO | HIZKUNTZA / IDIOMA | + INFO |
|---|---|---|---|---|---|
| Irailak 4 Septiembre | 19:00 | Panera plaza | ZURBARAN | Testurik ez / Sin texto | |
| Irailak 23 Septiembre | | Sabino Arana 50 | BASURTU | | |

(55 min)

# ERAITSI SL

goitibera




*Eraitsi S.L.* zuen herrira iritsi da obra berri bat egiteko. Oraindik zuen herrietan obrak egiteko espazio asko dago... parkeak, mendiak, plazak... etekinik ateratzen ez zaien lekuak eta bertan etxeak, aparkalekuak, azalera handiko supermerkatuak eraiki daitezke.
XXI. mendean gaude, porlanaren mendean, etorkizunaren mendean. Edo agian ez...

*Eraitsi S.L.* ha llegado a vuestra localidad para realizar una nueva obra. Todavía hay muchos espacios para hacer obras en vuestros pueblos... parques, montañas, plazas... lugares de los que no se saca provecho y donde se pueden construir casas, aparcamientos, supermercados de gran superficie.
Estamos en el siglo XXI, del cemento, del futuro. O quizá no...

| **DATA** / FECHA | **ORDUA** / HORA | **LEKUA** / LUGAR | **AUZOA** / BARRIO | **HIZKUNTA** / IDIOMA | **+ INFO** |
|---|---|---|---|---|---|
| **Irailak 7 Septiembre** | 19:00 | Eliza ondoko plaza | OLABEAGA | | |
| **Irailak 10 Septiembre** | 18:00 | Ibarrekolanda plaza | IBARREKOLANDA | Euskara | |
| **Irailak 29 Septiembre** | | Eskolako landa | URIBARRI | | |

halako ezpala

(40 min)

# MOTXILA



*Motxila*-k gutako bakoitzak bere motxila metaforiko eta pertsonalean daramanaz hitz egiten du. Bai, egun osoan aldean daramagun motxila hori, batzuetan bizkarretik kendu nahiko genukeena, garenak egiten gaituena, zama bat gehitzen diguna, gauzak egitera animatzen gaituena, mugitzen uzten ez diguna...
Kasu honetan, gure protagonisten motxila metaforikoez ari gara, landa-ingurunera eramango gaituztenak. Hemen, zirkua eta musika batu egingo dira, identitateari, beldurrei eta haurtzaroari buruz hitz egiteko.

*Motxila* viene a hablar de lo que llevamos cada una en nuestra mochila metafórica y personal. Si, esa mochila que llevamos durante todo el día, esa que a veces nos gustaría quitarnos, esa que nos hace ser quienes somos, esa que nos pesa, que nos anima a hacer cosas, que nos paraliza...
En este caso, hablamos de las mochilas metafóricas de nuestros protagonistas, que nos llevaran a un contexto rural en el que circo y música se unirán para hablarnos de temas como la identidad, los miedos y la infancia.

| **DATA** / FECHA | **ORDUA** / HORA | **LEKUA** / LUGAR | **AUZOA** / BARRIO | **HIZKUNTA** / IDIOMA | **+ INFO** |
|---|---|---|---|---|---|
| **Irailak 23 Septiembre** | 19:00 | Karmelo plaza | SANTUTXU | Testurik ez / Sin texto | |
| **Irailak 27 Septiembre** | | Mena kalea (detrás residencia Conde Aresti egoitzaren atzean) | ZABALA | | |

(70 min)

hodei magoa

# HARRITZEAREN ABILEZIA



"Hodei"-ren azken lau ikuskizunetako ideiarik onenak elkartu egingo dira, gauza guztiz berezi bat lortzeko. Ezustekoz betetako ordu bat, non magoen dilemari buruz hitz egingo den: ilusioekin jolasten dira, ala engainatzen gaituzte? Nork daki?
Inpaktu handiko ekoizpena, emanaldi landuak, ilusio handiak eta jolas originalak.
"Hodei Magoa"-ren umore tradizionalak, kasu honetan, 500 une barregarri ekarriko dizkigu. Bere laguntzailearen presentzia eszenikoarekin, publikoa erakarriko du, erritmo-aldaketez, ustekabez eta soinu-banda landu batez betetako proposamen batean.

Las mejores ideas de los últimos cuatro espectáculos de "Hodei" se juntan para lograr algo único:una hora llena de sorpresas en la que se hablará sobre el dilema de los magos... ¿Ilusionan, engañan? ¿Quién sabe?
Una producción de alto impacto, con números elaborados, grandes ilusiones y juegos originales.
El tradicional humor de "Hodei Magoa", que en este caso nos promete 500 momentos de risa, junto a la presencia escénica de su ayudante, conseguirán atrapar al público en una propuesta llena de cambios de ritmo, sorpresas y una trabajada banda sonora.

| **DATA** / FECHA | **ORDUA** / HORA | **LEKUA** / LUGAR | **AUZOA** / BARRIO | **HIZKUNTA** / IDIOMA | **+ INFO** |
|---|---|---|---|---|---|
| **Irailak 12 Septiembre** | 18:00 | Arabella plaza | ARABELLA | Euskara | |
| **Irailak 16 Septiembre** | | Agirre Lehendakariaren etorbidea 184 (LH / FP aurrean) | ELORRIETA | | |

(60 min)

hortzmuga teatroa

# AGUREA, URPEKARIA ETA ITSASOA



Itsasoak bi pertsona ezezagunentzako plan bat du, nahiz eta oraindik haiek ez dakiten. Ikaskuntza- eta tolerantzia-abentura bat da, umore handiz kontatua, familia osoarentzat, geure buruari, besteei eta ingurukoei ematen dizkiegun bigarren aukerei buruz. Kontsumismo masiboa, gehiegizko hondakinak sortzea eta horiek masiboki itsasora botatzearen ondorioak ikusarazten digun esperientzia. Adingabeek sare sozialetan duten esposizio arriskutsuari eta horren ondorioei buruzko ohartarazpena. Azken batean, gizatiarragoak izateko istorioa.

La mar tiene un plan para dos personas desconocidas entre sí, aunque aún no lo saben. Una aventura de aprendizaje y tolerancia, con mucho humor, sobre las segundas oportunidades que nos concedemos a nosotros y nosotras mismas, a los y las demás y a lo que nos rodea. Una experiencia que visibiliza el consumismo masivo, la elevada generación de deshechos y su vertido masivo al mar. Un toque de atención a la exposición peligrosa de los y las menores en las redes sociales y sus consecuencias. Una historia para ser, en definitiva, más humanos.

| DATA / FECHA | ORDUA / HORA | LEKUA / LUGAR | AUZOA / BARRIO | HIZKUNTA / IDIOMA | + INFO |
|---|---|---|---|---|---|
| Irailak 15 Septiembre | 18:00 | San Pedro plaza | DEUSTU | | |
| Irailak 17 Septiembre | 19:00 | Iturriondo plaza | ZURBARANBARRI | Euskara | |
| Irailak 30 Septiembre | 11:00 | Azoka parkea | ZORROTZA | | |

(45 min)

koilara teatro

# LA LLEGADA

**WORK IN PROGRESS**



Beste planeta bateko nabe bat Lurrera iristear dago. Jazoera historiko hori kontatuko dute irratiko bi erreportarik, eta tamainako gertaera baten narratzaile izateagatik hunkituko dira. Lehenengo inpresioak oso garrantzitsuak dira: anfitrioi ona izatea eta irudi ona ematea.
Mojak, alkateak, aprobetxategiak, Spielberg, segurtasun nazionala... Gizaki orok ikusi nahi duen ikuskizuna. Narratzaileek estrategia logistiko bat asmatu beharko dute beste galaxia batzuetatik bisitatzen gaituzten gonbidatu berezi hauek etxean bezala senti daitezen.
Kale-antzerkia, akzioz eta barre-algaraz betea. Antzezlan honetan, ikusleak aurkikuntza handi honen lekuko izango dira. Izan ere, egia ez dago etxean, egia da hor kanpoan dago.

Una nave extraterrestre esta a punto de llegar a la Tierra. Un evento histórico que será retransmitido por dos reporteros radiofónicos emocionados por ser los narradores de tal acontecimiento. Las primeras impresiones son muy importantes; ser un buen anfitrión y dar buena imagen.
Monjas, alcaldes, oportunistas, Spielberg, seguridad nacional... Un espectáculo al que todo ser humano quiere asistir. Los narradores tendrán que llevar a cabo una estrategia logística para que estos invitados tan especiales que nos visitan desde otras galaxias, se sientan como en casa.
Teatro de calle cargado de acción y muchas risas donde el público será partícipe de este gran avistamiento. Porque la verdad no esta en casa, la verdad esta ahí fuera.

| DATA / FECHA | ORDUA / HORA | LEKUA / LUGAR | AUZOA / BARRIO | HIZKUNTA / IDIOMA | + INFO |
|---|---|---|---|---|---|
| **Irailak 18 Septiembre** | 19:00 | Campa Ibaizabal plaza | ABUSU | Castellano | |

(35 min)

# la glo zirko dantza

## PYRENNE



Harreman horizontal eta bertikalen desafioa, sostengua, babesa, boterea, dantzan ematea eta jasotzea, berdinen arteko harremanak, generoen artekoak, aldaketen artekoak, igotzea eta jaistea, ihes egitea, beste pertsonarengan babesa bilatzea, beste pertsonarengandik elikatzea, aitortza bat bilatzea, besarkada bat, elkarrekin ibiltzearen seinale bat.
Zirku eta dantza akrobatikoko ikuskizuna, zeinetan jarrera akrobatikoak, masta txinatarra eta dantza eskalatua ikusiko ditugun.

El desafío de las relaciones en modo horizontal y vertical, el sustento, el apoyo, el poder, dar y recibir en la danza, de las relaciones entre iguales, entre género, entre cambios, de subir y bajar, escapar, apoyarse en la otra persona, nutririse en ella o buscar un reconociemnto, un abrazo, una señal de caminar juntamente.
Espectáculo de circo y danza acrobática en el que podremos ver portes acorbaticos, mástil chino y danza escalada.

| DATA / FECHA | ORDUA / HORA | LEKUA / LUGAR | AUZOA / BARRIO | HIZKUNTA / IDIOMA | + INFO |
|---|---|---|---|---|---|
| **Irailak 11 Septiembre** | 19:00 | Zumarraga plaza | SOLOKOETXE | Testurik ez / Sin texto | |
| **Irailak 30 Septiembre** | | Karmelo plaza | SANTUTXU | | |

(50 min)

orain-bi

# MUTE



Erdarazko mutar aditzaren aginterazko hirugarren pertsona singularra: "pertsona, animalia edo gauza baten itxura, izaera, egoera eta abar aldatzea...". Eta egun batean, iragana gure bizitzetara bueltatu zen, eta gurea dela sentitzen dugun guztia berreskuratu genuen. Gure antzokian elkartu ginen berriz ere: dena hautsez betea zegoen, hainbat urteren ondoren, eta gure zirkuko ikuskizunak bizitza berri honetarako eraldatuta berreskuratzen genituen aldi berean, mutatzen ginelako magia sentitu genuen!

Tercera persona del singular del imperativo del verbo mutar: "cambiar el aspecto, la naturaleza o el estado de una persona, un animal o una cosa..." Y, un día, el pasado volvió a nuestras vidas y nos hizo reencontrarnos con todo aquello que sentimos nuestro. Volvimos a vernos en nuestro teatro, todo cubierto por el polvo que delataba el paso de los años y, mientras revivíamos nuestros números de circo transformados a esta nueva vida, ¡se produjo la magia de sentir que mutábamos al unísono!

| DATA / FECHA | ORDUA / HORA | LEKUA / LUGAR | AUZOA / BARRIO | HIZKUNTA / IDIOMA | + INFO |
|---|---|---|---|---|---|
| Irailak 8 Septiembre | 19:00 | Indautxu plaza | INDAUTXU | Testurik ez / Sin texto | |
| Irailak 24 Septiembre | | Gernikako lorategia etorbidea | MIRIBILLA | | |
| Irailak 30 Septiembre | 13:00 | Uzturre plaza | MATIKO | | |

(40 min)

picuentos

# HARIAK ZIRKUS



Antzinako zirkuetan inspiratutako harizko txotxongiloen zirkua, zeinak herriz herri bizi baitziren ikuskizunak mundu osoan zehar eskainiz.
Ikuskizun hau manipulatzaile batek, organotxo baten “tourneuse” batek eta harizko 6 txotxongilok osatzen dute. Antzinako organotxo baten melodien erritmoan, txotxongiloek euren talentu oparoak oparitzen dizkiote publikoari.
Monsieur Butterfly zeremonia-maisuak saio guztiak aurkeztuko ditu, bere magia xarmagarriaz inguratuta. UltraViolet eta Tony Legreen pailazoek irribarrea aterako diote publikoari euren ustekabeko trikimailuekin. Eta, azkenik, Lady Blue, beti inpresionatzen duen fakir eta kontortsionista. Horra hor maitasunez eta itxaropenez betetako ikuskizun honen protagonistak.

Circo de marionetas de hilo inspirado en los antiguos titiriteros y circos de feria, que vivían viajando de pueblo en pueblo, llevando sus espectáculos por el mundo.
Un manipulador, una “tourneuse” de organillo y 6 marionetas de hilos componen este espectáculo. Al ritmo de las melodías de un antiguo organillo, las marionetas regalan al público sus prodigiosos talentos
El Maestro de Ceremonias, Monsieur Butterfly, presenta los números con su encanto mágico que todo lo envuelve. UltraViolet y Tony Legreen, dos payasos que con sus trucos inesperados hacen brillar todas las sonrisas, y Lady Blue, una faquir y contorsionista que siempre impresiona, son los protagonistas de este espectáculo lleno de amor y esperanza.

| **DATA** / FECHA | **ORDUA** / HORA | **LEKUA** / LUGAR | **AUZOA** / BARRIO | **HIZKUNTA** / IDIOMA | + INFO |
|---|---|---|---|---|---|
| **Irailak 7 Septiembre** | 13:00 | Betolaza | ERREKALDE | Testurik ez / Sin texto | |

(45 min)

rojo telón

# ROJO TELÓN GALA



“Rojo Telón”-ek bere hamargarren urteurrena ospatu nahi du gala batekin, bere hiru ikuskizunetan egindako lanak eta eszenak bilduz.
Proposamen dibertigarri honetako gidari bikainak ikuskizunean sartuko gaitu apurka-apurka, eta ikusleei barre eginaraziko die. Nortasuna eta talentua dituen ikuskizuna da, eta aireko eta lurreko zirku-emanaldi harrigarriak ditu.

“Rojo Telón” quiere celebrar su décimo aniversario con una gala, reuniendo los trabajos y escenas realizados a lo largo de sus tres espectáculos.
Sería una propuesta divertida conducida por un o una presentadora, que llenaría de humor tanto el escenario como a todo el público asistente. Un espectáculo con carácter, talento y sorprendentes números de circo aéreo y de suelo.

| **DATA** / FECHA | **ORDUA** / HORA | **LEKUA** / LUGAR | **AUZOA** / BARRIO | **HIZKUNTA** / IDIOMA | **+ INFO** |
|---|---|---|---|---|---|
| **Irailak 6 Septiembre** | 19:00 | Funicular plaza | CASTAÑOS | Testurik ez / Sin texto | |
| **Irailak 9 Septiembre** | 18:00 | Levante plaza | SAN INAZIO | | |

(45 min)

# OVIDIO BIDAIARIA
# EL VIAJERO Y EL GUARDAVÍA

teatro firulete




Ovidio poeta eta bidaiari nekaezinak Inora Ere Ez bidaiatu nahi du, eta, horretarako, 07:00etako trena hartu behar du. Baina trenbide-zaindariak ez du ulertzen zergatik sentitzen duen norbaitek mundua ezagutzeko bulkada, eta Ovidio tren horretara igotzea saihestu nahi du. Ovidioren errespetu eta ulermenaren ondorioz, lagun egingo dira.
Aktore-lana, txotxongilo-antzerkia eta zuzeneko musika uztartzen dituen ikuskizun dibertigarri eta hunkigarria.

Ovidio, poeta y viajero infatigable, quiere viajar a Ninguna Parte, y para ello tiene que coger el tren de las 07:00 horas. Pero el vigilante ferroviario no entiende por qué alguien siente el impulso de conocer el mundo y quiere evitar que Ovidio suba a ese tren. El respeto y la comprensión del Ovidio hacen que se hagan amigos.
Un espectáculo divertido y emotivo que combina el trabajo actoral, el teatro de títeres y la música en directo.

| **DATA** / FECHA | **ORDUA** / HORA | **LEKUA** / LUGAR | **AUZOA** / BARRIO | **HIZKUNTA** / IDIOMA | + INFO |
|---|---|---|---|---|---|
| **Irailak 12 Septiembre** | 19:00 | Media Luna plaza | TXURDINAGA | Euskara | |
| **Irailak 21 Septiembre** | 13:00 | La Floresta parkea | SAN ADRIAN | | |
| **Irailak 27 Septiembre** | 19:00 | Eliza ondoko plaza | MASUSTEGI | Castellano | |

zirika zirkus

(40 min)

# MARIETAK ZIRKUS



Umorez, ahizpatasunez eta maitasunez betetako antzerki eta zirkuko ikuskizuna. Istorioa zirku-konpainia bat daukan familia batean gertatzen da. Bertan, bi ilobek izeba Mari Pantxi zaintzen dute, hainbeste maitasunez, ezen batzuetan gehiegi babesten baitute. Umorearen, maitasunaren eta ahizpatasunaren bidez, obra honek maitasunaren eta elkartasunaren mugak esploratzen ditu, gehiegizko maitasuna kapazitismo bihur daitekeela erakutsiz.

La historia se centra en una compañía familiar de circo, donde dos sobrinas cuidan a su tía, Mari Pantxi, con tanto cariño que a veces la sobreprotegen. A través de humor, amor y sororidad, la obra explora los límites del cariño y la solidaridad, mostrando cómo el amor excesivo puede convertirse en una forma de capacitismo.

| DATA / FECHA | ORDUA / HORA | LEKUA / LUGAR | AUZOA / BARRIO | HIZKUNTA / IDIOMA | + INFO |
|---|---|---|---|---|---|
| **Irailak 1 Septiembre** | 19:00 | Indautxu plaza | INDAUTXU | Euskara | |
| **Irailak 13 Septiembre** | 13:00 | Media Luna plaza | TXURDINAGA | | |

zirkozaurre

(120 min)

# ZIRKOTEKA (UMEENTZAKO ZIRKU-TAILERRAK / TALLERES DE CIRCO PARA NIÑAS Y NIÑOS)



Parte-hartzaileak zirkuko elementuen erabileran murgilduko dira: malabareak, orekak, akrobaziak eta aireko elementuak. Helburua  haurrengan sorkuntza eta gaitasun artistikoak piztea da, jolasaren bitartez zirkuaren mundura hurbilketa eginez.

Se practicarán estos elementos del circo: malabares, equilibrio, acrobacias y aéreos, con el objetivo de estimular sus capacidades artísticas y creativas acercándolos al mundo del circo a través del juego

| **DATA** / FECHA | **ORDUA** / HORA | **LEKUA** / LUGAR | **AUZOA** / BARRIO | **HIZKUNTZA** / IDIOMA | **+ INFO** |
|---|---|---|---|---|---|
| **Irailak 15 Septiembre** | 17:30 | Indautxu plaza | INDAUTXU | Euskara | |

KALEKO ARTEEN ZIRKUITUA BILBOKO AUZOETAN

CIRCUITO DE ARTES DE CALLE EN BARRIOS DE BILBAO

# eszena kalera



iraila
septiembre
2025

BABESLEA / PATROCINA

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA POLITIKA SAILA

DEPARTAMENTO DE CULTURA Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA

kulturabarrutik.eus

KULTURA JASANGARRIA
CULTURA SOSTENIBLE

KULTURA BARRUTIK

Bilbao